

ZER

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

228n. zenbakia
jorrailla (apirilla) 1998



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



PUEBLA DE ARGANZON:

TREBIÑO'gaz BATERA,
EUSKALERRIA DA,
EUZKADI'n BIZI NAI DAU.
(AUTESKUNDEA 98-03-08)

EUSKERA-ZALEAK LOGROÑO'N!

Egun zoragarria izan da au, Otsailla'ren 7'koa. Batez be, merezigarritzko gizon baten laguntzaz, Logroño, Kalagurri, Andosilla'tik zear.

Urtarrilla'ren 31'n egin zan Euskerazaintza'ren azkeneko batzarrean; Latxagak, Otsailla'ren 7'an, Logroño'ko ikastetxe nagusira joan bear gendula esan eustan; an, goizeko 11tan "EDIFICIO KINTILIANO" deritxon etxe-atal bateko sarrean, "LAMIN ITURRI" izendatuko-talde baten buru egiten dauan gazte bigaz alkartzeko.

9'ak lauren gutxiagoan urten gendun Donosti'tik, eta 11'k baino minutu bi lenago bertan egon ginen. Later agertu ziran gazte bi: Perujo'tar Jose Mari eta Martinez Saenz de Kubero'tar Martin. Aurkezpeneko agurtzapenekin, bereala, gogatsu eta biotz zabalak daukan indarrarekin asi ziran esaten euren asmoak zeintzuk ziran: Leenengoa, ez zirela Errioxa'tarrak, Naparrak zirela; euren lurraldeko izen edo deitura guztia euskerazkoa dalako, eta ori, "Arbasoak Euskaldunak zirelako". Martin'ek bere esanetan ain argi eukala ikusiaz, itaun bat egin neutson edesti aldetik, eta ikusi neban bai! Ikastetxe-Nagusiko ikasleak zirela benetan.

Bigarrena, euren taldea, amar gazteren artean beteten ebe-la, eta asmo guztia euskaraz ikastea zala benetako euskaldunak izateko, lurraldeko edestiaz aaztu barik. Ori bai!, politikako arlotan sartu barik, inor ez daiten mindu.

Irugarren, antolatzaile-gailuan gaur "INTERNET" deritxon mezu-bide barrira be sartuta dagozela, bear diran galderak bideratzeko, eta euskal-ludiko senaren iturritik, gaur berak emoten daben erreztasunak egarrira asetzeko.

Artean, Perujo'tar Jose Marik esan eustan: itz-sustrai edo itz-etorkian, buru-belarri sartuta dagoala taldea. Beneukela abizen itz-errozko iztegi bat erantzun neutson, eta bialtzeko geratu nintzan.

Mezu-bide onetatik jakin ebazan Latxaga Jaunak "LAMIN-ITURRI"ren barriak, eta urrutizkin-bidez euren kokamena, ainbat lekutan ikututa.

Alde zaarreko akeitegi batera joan ginan, aurkezpen ostean, alkar-izketarako.

Ekin-bidea, beti eroan eben eurak, Jose Mari (Latxaga) eta ni. oar-lekutik begira gengozala.

Nundik nora aurkitu zenduen "LAMIN-ITURRI" izen ori?

"Rio-Oja" izenaren itz-sorkuntz edo itz-sustraiian billa joan ginan ostera baten Azkarai ingurura, Oja-kastro ra ain zuzen; Oja ibaiak izena artzen duan jaiio-tokira, eta an, bertan, iturritxo hat dago "LAMIN-ITURRI" deritxona; ortik artu gendun gure taldearen izena.

Izenaren ara-berako izakeratan, itaun egin neutson Perujo'tar Jose Mari'ir: ez ote da izen berezi bat au ("LAMIN-ITURRI"), eta bestea ("RIOJA") egindakoa?

Zer esan nai dozu?

Gizonak, izendatu ez gero, itzak daukan esaeraren kanpo aldetik ezer ezean geratzen dalako dau au, ez dau esan gura

ezer. Eta alan jokatu ez gero, lekuaren eta gizonaren sustraia galdu egiten dau; gizona, lurralde eta gauza guztiak gure eza-gueraren artu-emonerako utsik itziazi!

Zergaitik?

Zuek len esandakoagitik!

Errioxa'ko izenak ez daukalako zentzurik, Ibero-ibaia edo Ebro-ibaia izan ezik, zeozer izendatu gura ez gero!. Eta arrazoiak daukazue BAZKONUN ERRIA edo NAPAR ERRIA zariela ezanaz. Ez arinagoko izenak diralako, bai izen bereziak diralako!

Martin, luzaro ibili zan esaten: "abade baten laguntza euki bagendun gura siñisgarritasunerako, taldea ugaritu egingo zan".

Eta on?

"Garrantzi aundia emoten dautsagulako gure gazteen artean sinis-bideari".

Bail, Lizarran, Jose Mari'ren etxean igande arrastirarte geratzeko, aletin asko egin ebezan biak. Orduan bete ebazan Latxagak leenengoz Martin eta Perujo'tar Jose Mari'ren ardurak: "ezin dogu ori egin, biar goizean MESA SANTUA emon bear dotelako".

Or abadeal.

Jose Mari'k (Latxaga), gure alkar-izketa amaitutzat emon ebanean, urten gendun akaitegitik gurdia kokatuta egon zan lekuranza. Bidetik, sagardotegi baten aurretik goazela, Latxaga ez zan egokitu bere buruaz, eta bazkaldu egin bear gendula bertan esan eban. (Ez da arritzekoa, danon poza ikusiaz).

Baskal-arteko alkar-izketan, bai bete ziran euren kezkek. Abadeen aurrean euki ebelako; baina, nun ziurtasuna, an erahiltzen ziran ikasgaiak. Orduan Latxagak, esan bearra eukan, here leenengo irakasle-mailla Teologian zala; bigarrena Antropologian, eta irugarrena izkuntz-jakintzan edo izkuntzalaritzan.

Euren izakerari buruz esan bear dot: Penijo'tar Jose Mari, Euskal-Filologia ikas-nai dabillela Ikastetxe-Nagusian. Begi-zorrotzekoa, somakaria dala; bai, berba gitxikoa he, bere zuurtasun edo zentzuko izakerak agertzen dauan lez.

Martinez eta Saenz de Kubero'tar Martin alde-erantziz, gartsu, gogo beroz, agertzen zan here izakeran. Askatasunezko egi bideri atzeman, topo egin edo beretzat erabakita egon ba zan lez. Kimika ikasle dabil Ikastetxe Nagusian.

Biak ulermendunak, zintzoak, prest eta gogotsu euren taldearekin Euskararen bidea beteteko. Benetako Naparrak izateko!

Or daukazuez!, laguntza eske "INTERNET" deritxon mezu-bide ban-itik!

Latxaga'ri esan neutson: "gure au, ez da izango azkeneko ostera Errioxa aldera".

ATUTXA'tar PAUL
ZORNOTZAN 1998'ko ZEZEILLA'ren 19'an

1997'KO "EUSKERAZALEAK"EN EKINTZAK

Gabon Jaun-Andreok:

Urte guztietako aoiturareari jarraituz, ona emen igaz egindako gure ekintzen azalpena.

EUSKAL IKASTAROA

Oikoa danez, lengo Urrilla'n gure euskal ikastaroa asi zan. 1977'n urtean gure erakundeak asiera emon eutsan euskerearen irakaskintzari, eta ordutik, eten barik, urtero ospatu izan doguz gure izkuntzaren ikastaroak. 8.000 bat ikasle igaro dira gure etxetik aberriaren berbetea ikasteko, eta onek beste ezerk baiño geiago poztuten gaitu. Aurtengo ikasle-kopurua igazkoa baiño andiagoa izan da.

EUSKAL ASTEA

Urte guztietan lez, Gabonillaren lenengo astean, Eskolapiotarren ikastetxean, Euskal Astea ospatu genduan, eta beste urteetan lez, entzuleen kopurua naikoa ugaria izan zan. Ona emen izlariak eta emondako gaiak:

- | | |
|----------------------------|-------------------------------------|
| 1. Legarreta'tar Asier. | "Bertsolariak eta Buren eskolea". |
| 2. Zubiri'tar Iñaki. | "Aurre-Apraiz olerkari". |
| 3. Olazar'tar Martin. | "Bizkai'ko euskerearen laburpenak". |
| 4. Zubikarai'tar Augustin. | "Gabonetako oiturak". |
| 5. Olazar'tar Martin. | "Bizkai'ko Euskerearen agozkerak". |

IPUIN-SARIKETA

Ezin lengo urtean, Ipuin-Sariketari dei egin barik geratu, eta oikoa danez, lanak saritzeko deia egin genduan eta onek izan dina sarituak:

Lenengoa	50.000 laurleko:	GOKOETXEA'tar IÑAKI
Bigarrena	40.000 ":	ARRINDA'tar ANES
Irugarrena	30.000	KORTAJARENA'tar ANDONI
Laugarrena	20.000 :	LEGARRETA'tar ASIER
Bostgarrena	10.000 ":	ZUBIKARAI'tar AUGUSTIN

Aurten, maikoen epaiketa au zeozer atzeratu egin da, baiña "ZER" gure aldizkarian, zenbaki onetan agertzen dira sarituen izenak.

EGUTEGIA

Bizkaia'ko sutondo askotan, aurten be ez da peituko (uts egingo) gure egutegia, geuk atonduta eta BBK'k

EUSKERAZALEAK

argitaratua. Guretzat poztasun andia da gure etxeetan euskera-zati bat egunero irakurriko dala jakitea bizkaiera jatorrez, gure euskerea ain txokoratua danean batez be.

"ZER" ALDIZKARIA

Martin Olazar'en zuzendaritzapean, bizkaieraz argitaratzen dan aldizkari bakarra gure bazkideen eskuetara eldu da aurten, beste urteetan lez. Ezin dogu, baiña, salatu barik utzi, Euzkadi'ko erakunde guztiek gure euskerarekiko erabilten daben jokaera zentzunbakoa ta kaltegarria. %40 euskaldunek darabilten euskalkia, euskeraz jabetu diranak txokoratzea ta zapaltzea, erebagi dabe, asmatu-rik sasi-izkuntza bateri osasun geiago emoteko. Urterik-urte ikusten dogu gure euskerearen erailketea, Bizkaiko agintariek iñongo neurririk artu, iñongo osterea, iñongo salakuntza egin barik. Ergelak lez ikusten dogu gurekin egiten dan basakeria ezetariko jarkipenak erakutsi barik. Geiago, gure agintariak errudunak dira bizkaieraren egoeraz, euren isiltasunaz "batuari" laguntzen dautsoelako etxeko euskeraren kaltez. Eta augaitik, nik gaur agirian salatzen dodaz Bizkai'ko agintariak, darabilten jokabide zentzunbakoagaitik. Sarri askotan, nire buruari itauntzen dautsat, bene-benetan euskerea ardura ete yaken...

LAGUNTZAK

"EUSKERAZALEAK"; gure bazkideai ta beste laguntzaillei zor dautse bizirik jarraitu aal izatea. Beste urteetan lez, laguntzailleen artean aipatu bear doguz Bizkai'ko Foru Aldundia, Bilbao'ko Udala, BBK eta Eusko Jaurlaritza. Sorospenaren giñoan ataraten doguz gure asmoak. Eskertu bear dautsagu eta ez neurri txikian gure idazle-taldeari, berari esker, "ZER" aldizkariak arnas barria artzen daualako bere illeroko bide-egiteari jarraitzeko.

Besterik ez Jaun-Andreok

ZUBIRI'tar IÑAKI

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (2.500 pezeta) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan BBK'ra eta ordaindu 2.500 pezeta. Ez dozu ezer be idatzi bear

Bahia aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!



OITURA ZARREN GOGOETAK

Gure didarrak ez entzuteko
nun zagoz Aita Sabiño?

.....
.....

Onelaxe asten dira aldi baten euskal abertzaleok sarri gogoratzen genduzan bertsuak.

Bertso oneik Enbeita'renak dira. Baña ez askok uste daben lez Enbeita "Urretxindorra" deituraz ezagutzen zanarenak.

Enbeitatarrak endaz dira bertsolari.

Eta gaur familian, gaurko belaunaldikoetan ainbeste ezagutzen doguzan lez, aldi baten be, orain irurogetak urte, bereiztu egin bear ziran bat Kepa bertsolari abeslaria, "Urretxindorra" deitzen eutsena eta bestea Imanol edo Manuel, bere anaia, bertso on eta maitekorrak idazten zituna, "Garbi Nai", "Uribitarte tar Ibon", "Imanol" eta antzerako deituekaz edo izen goitikaz egunkarietan idazten ebana.

Anaiak ziran Kepa eta Imanol, nik esango neuke bata kaleetako eta plazetako abeslaria eta bestea egunkarietakoa, periodikuetakoa.

Dana dala, azken onen bertsoak gogoratuaz, bere antzera, asi neike gaurko ekitaldia:

Gure didarrak ez entzuteko
nun zagoz Euskalerrri?

Zenbat oitura galduten zoaz
zure bizi kaltegarri?

Gure aberri kutuna
maite dogun ezaugarri,
gaurko-ontan ekar daiguzan
batzuk gure ezaugarri.

Asi gaitezen aste onetatik,
Igandea, domeka: Ander daunaren eguna.

Esaera zarrak gogoratu:
San Andres, txarria askan trabes.

San Andres, lau-kopautan lau tremes, bostgarrena saman trabes.

San Andres, cierra el mez. Goizean Azilla eta gauean Abendua.

San Andres, maia paratu ta ogirik ez.

San Andres, bart ein dot amez, zeurez eta neurez.
Jinkoa ta Andra Maria bear nazazue zeuen.

Baña zein gogoratzen da Arrigorriaga'n antxiña baten euskaldunak erdaldunekaz euki eben gudaketa larriagaz?

Askok uste dabe txarri jana edo orrelako zerbait ospatuten dala egun onetan.

Batzuk ala egingo dabe, or dagoz esaerak be-ta.

Baña Bizkaian beintzat eta gure gizaldian asita ospatzen diran apariak gure istoriko beste zerbait gogoratzen dabe.

Gertaera Bizkaian izan zan lez, bear ba da origaitik geroago asi ziran gipuzkoarrak be jai au ospatuten.

Zer da ba Ander daunaren eguneko aparien zegaitia.

Egia da antxiñako oroitza eta egunei buruz eta urteei buruz ziurtasun zeatz bat emotea gaitz dala.

Arrigorriaga'ko gudaketa lez ezagutzen doguna, Ander deunaren egunean gogoratu eta ospatzen dana, gure mendeko 888 inguruan mugatzen dabe historia idazleak. Batzuk zerbait leentxuago.

Arana Goiri tar Sabin'entzat gudaketa ori, gure gurutse bidun ikurriñaren agerpenetan, orlegiagaz, berdeagaz iruditazen doguna da, Ander deunaren gurutzaz lez ezagutzen danagaz.

Orlegi edo berde illun mardulagaz goiruditu bear da, au da, aritzaren koloreagaz. Ez garaitza bat gogoratzearren bakarrik. Bai eta indarkeriaren aurka legearen ezaupidea zabaldu eragiteko be.

Euskaldunak, batez be bizkaitarrak, egun andi au Ander deunaren egunez ospatzen asi ziran.

Bear ba da Arrigorriaga'ko gudaketa au ez zan izango lenena, orduko giroan errien mugaetan egitadarik txikienak be indarrezko jokeretan biurtzen ziranean.

Baña ezaupiderik luzeena daukana, atzera begira urrunen doana, berau izango da, uste baten.

Otxandio, Gordexola eta Mungiako indarraldi lez ezagutzen diranak, geroagokoak dira, urte asko onuntzagokoak.

Arrigorriaga'koa gogoratzean, Zenon bateri emon geinkio indarraldi orren asiera.

Asturias'ko errege zan Alfontso Nagusiak here menpean eta espetxean auki eban gure gidarietako edo ordezkarietako zan Zenon ori. Euki eta baita bertan ilten itxi be.

Orren jakitun egozan bizkaitarrak eta gora-goraka asi, asarez, sututa.

Alfontso erregeak Bizkaira etorteagaz zemaitu zitun

EUSKAL ASTEA

gure zarrak, menderatzeko asmotan. Nai eta oraindik Durango eta durangaldea deitzen zan errialdea garai aretan here Jaunen mende egon eta euren agindupean bizi, bizkaitarrekaz batu zan bertako jaun zan Santxo Bertiz. Bizkaitarrak Jaun Zuria eroan eben buru edo gidaritzat. Eta biak, euren lagunekaz batean, Padura deiturako lurralde inguruan sekulako astiñaldia emon eutsen Asturias'tik emengoak zapaldu nairik edo asmotan etorri ziranei. Batzuk iges egin al izan eben, baña beste asko birrinduta geratu.

Orduko egiñaldi edo gudaketaren gogoeta da orain euskaldunok, Ander deunaren egunez, lagunarteko apartan ospatu nai izaten doguna.

Origaitik asierako aldietan eta azken gerratean be zigortu izan zituen eta kartzeletan sartu be bai apari onetan arrapatu al izan zituenak.

Kepa Enbeita "Urretxindorra" lez ezagutu izan zan bertsolari jatorrak, gogoan euki eban here kantuetan gudaketa au eta bertsoen artean onelako gogorapen au laga euskun:

Arrigorriaga'n zan
ondatu Ordoño,
garaille andia
bizi da oindiño.

Abenduak 1.-

Luzaro, gure etxe askotan, Xenpelar bertsolariaren gogapena egiten zan. Xenpelar, izen eta abizen jatorrez, Juan Frantzisko Petriarena Berrondo zan, aitaren bigarren ezkontzako laugarren frutua.

Askok ez eben gogoratzen bertsolaririk, baña gaia bai. Eta ori bai, askok gordeten eben bertso papera, amartzzi kantalditan banatutako bertsoduna.

Bear ba da eguna gogoratuaz asten diran bertsoak diralako, be, egunak gogoratuko zitun kanturako:

Abenduaren lendabiziko
goizeko zazpitan zen,
tenplo santuan egondua naiz
sermoi eder bat aditzen;
Jesusen llaga preziosoak
astera nua berritzen,
Zeruko Aita, lagun zaidazu
entendimentua argitzen.

Baña denborak ez dabe parkatzen.
Parkatzen ez daben lez Abenduaren bikoak.

Erri bat estropadetan sartua, leporaiño sartua izan be, Ondarru izan zan.

Illaren bian, dirala 107 urte, Euskalerrian jokatu izan danik estropadarik gogorrenetakoak jokatu zan.

Eguraldi txarrak benetan, Azillaren 23'an jokatzeko zan estropada, ezin jokatu amar egun luzetan.

Lekeition asi eta Getariko san Anton'era zan estropadaren muga. Desafioa, zemaia, Ondarru eta Donosti artean. Ondarru beia jota geratu zan, izan be erri pobreak itsuagoak izaten dira jokoan, besteak baño-ta, eta al eban guztia jokatuta eukan.

Gero zenbat urtetan gogoeta negargarri ori, eta zenbat zirikaldi ori zala-ta?.

Gaur, zorionez, beste burubide batez jokatzen da eta errien artean batzutan irabaztea eta bestean galtzea erra-zoizkoago artzen da.

Abenduak 3.-

Jaia Napparroan. Aldi baten jai, baita, Lekeition.
Ango abestia da:

Indietako Apostolua aita Jabier gurea,
pelegriñuen jantzian dator
bidezkarrien trantzean.
Ez aurrera joan,
gelditu emen,
gure uria goratzen.
Bear zaitugu beti
Aita Jabier Frantzisko,
Lekeitioko uri noblea,
o zeure zoriz betea
Napolestikan ekarri dabe
Napparroako semea.

Abenduak 4.-

Trumoi burrunbadak entzun ezik, iñor gogoratzen ete da santa Barbaragaz? Onetan be Xenpelarren bertsoak erriaren gogoko:

Santa Barbara zure bizitza
kantuz bear det zabaldu,
argitasun bat memoriyara
nai ba dirazu bidaldu;
biotzak poza, mingañak ere
zerbait itzegingo al du,
ejenplo ori aditu faltan
iñor eztadin galdu.

Gu, itxasertzean bizi gareanok, denbora bateko txalopetako makinista-fogoneroekaz gogoratzen gara.

Aldi bateko arrantzalien bizi neketsua gogora dakarkigu egun onek, gure errietako portuak, batzuk, Ondarrrun lez, ibai berbera izaten ziranekoak, itxas gorabere-tan itxasorako urteerak eginera lotzen ziranetan.

Zorionez denbora orrek joan ziran.

Abenduak 5.-

İñor gogoratzen da gaur, aldi baten "Orixe" izengoitiaz ezagutu izan zan Nikolas Ormaetxea, Orexe 'ko seme jator izan zan idazle jatorragaz?

Zenbat lan eta zenbat neke... ia ia esker txarrerako.

Gure gerra aurretxoan Bilbon be bizi izan zan "Euzkadi" egunkariko euskal ataleko arduradun.

Egia esateko, emen ez zan egon bere giroan. Bilbotarrak ez eben atsegiñez ikusten Bilbo lako erri baten, bereari ain gogor eutsiten.

Baña ortik kanpora, bere "EUSKALDUNAK" poema besapean ebala arrapatu eben, gerrako egun latzetan, esaten dabenez fraile baten salaketaz. Gero, erbestean, idazle askoren zoria: jan truke bizi bear. Ia ia, gaur esaten dan lez, karidadez.

Abenduak 8.-

Sortzez garbi eguna. Eusko Gaztediaren eguna. Zela-ko kantu ederra, egun onetan ao bete-betea eta biotzez abestuten zana:

Euskal erriko gazte zintzoak
atozte danok batera

Ama Birjiña sortzez garbiak
deitzen zaituzte bere aldera.

Eta...

Sortzez garbia deitzen zinduzten
gure antxiñako legeak,
Sortzez garbia deitzen zaitue
euskaldun zar ta gazteak.

Ondarroan ba gendun maite-miñetan ebiltzanen arteko oitura bat. Neskatillak, begiz jota eukezen mutillei, zigarro purotxoa eskintzen eutsen. Eta puroa ano erabilten eben mutillak euren jakaetako goi-aldeko patrikara-txoan. Batzuk, eurak erosita be bai. Ai arrotasun zoroal.

Ba egoan errian beste oitura bat be. Egun onetan eta Errege egunez oituten zana.

Sortzez garbiz neskatillei eta errege egunez "gizon ondraduei", txistulariak bazkari bitartean euren etxeeta-

ko atadietan soiñu aldiren bat eskintzen eutsen. Baña gerra osteko urtetan aspertu egin ziran gizon ondradutzat artzen, euren gurasoei, edo semei edo anaiei salaketak egin eta kartzeletan edo erbesteko bakartadetan erri fñiñez bizitera beartu zituenei edo zigorpeko batalloetan gaztetasun adorea itto eragiten euki zituenei, ederkatura on egiten aspertu ziran.

Gaurko egunez il zan Errenderin "Xenpelar" bertsolari ospetsua zana, 34 urte eukazala, 1869 urtean. Gogoratu beragaitik "Basarri" k esana:

Tristuraz gaude beterik,
au eztago ukatzerik,
gaur edo biar biziko al da
zuk zendun izkerarik?
Ez nai guk au ikusterik,
ezpaldin bada euskerik,
Euskalerrriak eztu izango
izena besterik.

Abenduak 12.-

Egun onetan beteko dira 55 urte Enbeita tar Kepa itzala. 1942 urtean il zan. Gerra denboran nun egon zan Euzkadi 'ren olerki abeslaria?

Biaizteri, Laguardian egon zan. Ara joanda egoan, bularretiko gaitzez, osasun billa eta an gertatu anai arteko gure guda asi zanean.

Eriotza, Muxika 'ko bere etxean izan zan, aurrez etxeratuta egoalako.

Berak eukazan jarraitzalle eta adiskideekaz konturatzeko, gogoratu daigun bere azken egunetan irureun lagunetik gora izan zirala bera ikustera joan ziranak

Berak ba ekian il bear ebala eta bera asi ei zan adiskide batzuei agur egin nai eutsela ta deika. Gauza andiak ikusteko egoala esaten eutsen adorez beterik joaten zira-nei. Ortik ainbeste lagun azken egunetan here etxera urreratu.

Abenduak 13.- Santa Luzi eguna.

Gaur insumisoak modan dagoz. Baña zeiniek gogoratzen daki 1876 urtean Bizkaiko Aldundia be insumisotzat etsi ebala Madrideko Gobernuak eta Aldundiak eukazan diru kontu guztiak kendu eta eragotzi eutsazala? Zegaitik? Ba emendik ebillan Gudarosteari, Ejerzituari, ogirik emon nai ez da ebillalako.

Gure gurasoak ba ekien, denbora areitan be, euskal bereiztasuna agertzen.

Santa Luzi egunak, beste erri batera garoaz. Urretxu eta Zumarraga'ko ferietara.

EUSKAL ASTEA

Feri au gizaldi bi aurretik, Ezkioga'n ospatuten zan. Eta bakardade eta illunpe aitzakiekaz, Ezkiogari kendu eutsen baimena besteen mesedean.

Zegaitik Zumarraga'n orain eta ez Urretxu edo Ezkiogan?

Ba dago zer esanik ontaz.

1727 urtean Gipuzkoako Batzar Nagusiek erabagi eben bakardadeko tokietan egiten ziran ferri guztiak aurrerantzean erri barruetan egiteko geien bat bakardade lekuaren jaube edo auzo zan errian.

Ori ikusita Urretxu'ko erriak Castellako Kontseillu nagusira jo eban, eskatzen baimen ori, Ezkioga'k here asarrea agertuarren ez eutsen jaramonik egin.

Baña Zumarraga'k ikusi ebanean ferri orrek diru asko emoten eutsala Urretxu'ri, bere auzo eta muga egiten dan Urretxuri, berak be gora jo eban 1753 garren urtean, baña goikoak dekretuz zeaztu eben, Urretxun bakarrik ospatu eikiala ferri ori eta zigortua izango zala Zumarragan saltzen ebana.

Gauzak orrela zeaztuarren, gaur Urretxu eta Zumarraga bietan egiten da feria. Zumarragak lur-lautu eta ero-soagoak daukazalako an egiten da abereen agerbiderik andiena, baña txosna, barraka, erri kirol, pelota joko eta abar Urretxu'n ospatzen dira.

Dantzari, jostun eta abar... edonun. Izan be gaitz bereiztuten dira egun onetan zein dan Zumarraga eta zein Urretxu. Biak be txiki geratzen dira.

Zumarragan geien bat zaldi feria egiten zan. Gipuzkoako zaldi ferri bakarra. Gaur euneko larogei bestelako abereak dira batzen diranak.

Baña nire gogoaz ez dua ortik. Bai esan nai dot toki asko baliatu zirala bakardadearen aitzakizko agindu orregaz. Orrela Arrasate'k be lortu eban urteko feria alboetatik bertaratzea.

Abenduak 16.-

Gaur Euskalerrian bizi garean askori, a zelako erakutsia emoten dauskun 1622 urteko Bilboko arauetan agertzen dan batek.

Euretan esaten da Bilboko erri ardura edo kargudun izateko ogetabost urte beteta euki bear zirala, eta milla dukatetik gora euki ondasunetan, eta odol garbiduna izan, moro, judear, oraintsu bilbotartua edo inkizisiñoiak zigortu bakoa. Ala aitaren edo amaren senitartez eta gitxienez amar urtez emen bizi dana.

Orrelako legeak erri baten asko izatea erakusten dau.

Lege ori galdu ez ba litz, ibiliko ete giñan euskaldunok, toki askotan gaur gertaten dan lez, gure lurraldean, gure aitaren etxean be ezin aginduta?

Amar urte bertan, etxea ezagutu ta bertako oituretara makurtuteko. Ez gaur lez, trenetik urten eta oinkada bat emon orduko kale jaube egiten.

Abenduak 21.- Tomas deunaren eguna

A zelako gomutak egun onek! Batzuk onak, besteak... zorionez amaitu ziran egun onetako zalantza eta bildur asko etxe jaunen eta erreteruen artean.

Gogoratu Basarri'ren bertsoak:

Garai baten kapoi pare
nagusia ren etxera,
bakallau zar bat zintzilik artu
ta buelta mendi aldera.

Aida bearra ba zegoan eta
pixka bat aldatu gera,
ainbeste tarte ez dago orain
gizonetik gizonera.

Esaeretan be aberatsa da egun au.

Santo Tomas, bukata egin eta ogia nas. Edo ta Santo Tomas, txorixua eta ogia. Santo Tomas, egunik laburrena.

Santo Tomako periyak, etxe askotan komeriyak.

Donosti'n, aspalditik, santo Tomas eguna euskal egun lez artzen zan. Euskal antzerki eta abar.

Bilbo'n Miserikordiko txarriaren zozketa. Eundak urtetako oitura.

Santo Tomas egunaren inguruan, Gabon itxura, gabon usaiña eta Gabon guraria artzen asten gara etxe eta kaltetan.

Gogoratu Txomin Agirre ondarrutar idazle ospetsuak, gipuzkeraz idatzi eban "Garoa" elebarrian diñona:

"Ez dago euskaldun etxeoandretik, estuen eta larrien bizi dana bada ere, seme, senar, gurasoentzat ortik edo emendik, janari gozo ugaria lortuko ez duanik Gabon apartarako, naiz eta beste gau asko baratsuri salda utsez igaro".

Gure aldetik gogoratu iñoiz irakurri izan dogun bertso au:

Gabonak ba datoz eta
egunak aurrez oroitu,
karakol ta marraskilu
uretan erabil glu-glu;
gatzur eta ospiñetan
tarterik tarte aldatu,
gabonez oituten dana
urtean bein beingo dogu.

Orra gabonetako janari bat.
Noiztik Euskalerrian?
Astuna da, osasuntsua, egoskor?
Labur labur zerbait onetzaz.

Nabari izaten da denboraldi onetan karakol batzen, bide egaletako ormetan gazte, zaar edo adiñeko eta abar ikustea, ormetako arri alkartzetan igarten diran zulo eta tarterik txikienean be, burdinki estu ta luzeekin, zirtizarta zuloetan bidestu zabalak lortu eta karakolak batzen. Jakiña da, etxe jaube eta lur jaubeen asarrez, arriarteko espaloi eta kare-ore ondakin guztia arraskatu eta galdu eragiten dabela.

Zelan sartu ete zan marraskulu jatea gure errietan?

Ez jakin. Nik ba dakit ezaguera nebanetik etxean jaten genduzala. Eta ume -umetako urteak kenduta, laro-gei urtetara eldu neike on ziurtatu neikela.

Oraintsu liburu baten irakurri neban zeanuritar batek esana. Bere aitak 1885 urtean jaio zala eta esaten ebala marraskillu bako gabonik ez ebala etxean ezagutu. Ba dira esaten dabena Euskalerrri goi aldetan ezaguna izanarren Bizkai alderik geienean ez dala orrelako oiturarik gitxi baiño ezagutu.

Dana dala ba dirudi antxiñako bildurrak galtzen asi gareala. Zetan ibili egunetan garbitzen eta kopletan? Asko dira gaur, itxasertzeko lapak lez, batu eta egun berberatan txapa ipini eta erreta jaten dabezanak. Eder ederak ei dira.

Baña onetan aituak esaten dabe bizi-bizi artzen diran marraskilluak gitxienez bost egunetan "purgatzen" euki bear dirala. Amabi egunetik gora sekula be ez.

Zegaitik ez? Ba bizi diran artean edozelako bedarrak jaten el dabez, nai ta pozoitsuak izan eta garbiketa on barik, jaten dabena sartu leikela pozo on ta larrialdiak emon. Eta bein ilda gero be gogortu egiten ei dira egunetan eukiaz eta jateko atsegin guztia galdu.

Oraintsu, urte onetan, Julian Bereziartua osagille ezagunak liburu mardul bat atara dau "Salud y cocina" izenez.

Aren esanetan, marraskilluak, saltsa barik, ez dira berez egoskorak.

53 marraskillu arrautza egosi erdiko baten parean geratzen ei dira, edo ta 6 azeitunen bardintsu edo ta kollara bete gozoki (azukre) ren pare.

Eta bere esanetan, jendeak uste ba dau be marraskilluaren zatirik atsegiñena aurre alde dala, ez dala onela. Bere ingurubillaren atzean daukala zatirik gozoena, bertan dagozalako gibel, kuntzurrun eta abar. Liburu onetan be irakurten da ez dirala jan bear batu eta egunak igaro barik. Aste bete ingutu sare baten gorde bear dirala euren esteak garbitu dagiezan.

Marraskilluaren berezitasun batzuk oneik dira:

Marraskulutik %85 ura dira; gatz mineraletan %2, Proteinetan %12 eta %0,5 koipetan.

Lotia el da. Minutuko 3 edo lau bidar amas artzalle. Erroltzean eun arrauts txiki ipinten ei dauz udabarrian. Andik illabetera marraskillu biurtzen dira arrautzoko eta urte betera marduldu.

Aragi ala arraiki ete da karakola?

Frantziako Nekazaritza Saillak ataratako liburu baten itaun au egiten da eta erantzuntzat ba dakizue zer ematen dabena? Karakolak ez dira ez aragi ta ez arrain; karakolak (marraskilluak) lurgintzako arerio dira.

Orra gure janari orretaz zer diñoen. Gure janari esan ba dot be, Barandiaran'ek esaten ebana autortu bear dot: Euskalduna ez dala karakol jantzallea izan, ez dala, diño berak, "helikofagoa" izan.

Alonso Barros 'en Refranero Español" liburuan esatera au irakurten da: Caracol de Mayo, candela en la mano". Alaz eta ia Maiatzean, egun bi lenago ospatzen da Araban Prudentzio deunaren eguna eta an egun onetan sekulako geien jaten dira marraskilluak.

Beraz zer esanak, bakoitzaren kontura.

Gabonetako beste janari bat, atsegiña bera: Angulak. Baña zenbat irabazi bear da lanetik, angulak nasaitasunez eta kezka barik jan al izateko?

Gure etxean urtero jaten genduzan angulak, baña ez erosita, aitak artuta baño. Zortzi amabi urte bitartean, ni neu be angulatan ibiltzen nitzan aitagaz.

Aita arotza zan. Bere aroztegian gordeta eukiten zitun iru bae (bai) angulak arrapatzeko. Eta aita, koñatua eta besteren bat, an ibiltzen giñan ibai egalean, bein illundu ezkerre gaberdirarte gertaten ziran mare egokietan. Pozik ibiltzen giñan, lo-erre ta guzti angulatan, bai eta gero tabakoagaz euri il eragiten be.

Geroago, gure gerratean, gogoratzen naz Bilboko jatetxetan 6 pezetatan emoten zala erraziñoia eta baita lebatza be lau pezetatan.

Baña orduan be diruak diru.

Dana dala oraingo salneurrietan, ez dot uste erri-apari izan leikenik, nai ta batzuk atzerarik ez.

Angulen berezitasun batzuk esango dodaz ta kittu.

Bat, angula oso-osorik jaten dala. Ez dauka galtzekorik.

Beste bat: angulen beroarriak, kaloriak, ara zenbaterako diran: 100 gramo angula erraziño bakoitzak, olio alboa lagata, 200 berogarri daukaz, au da, kollorakada bi ezti aiña, edo ta sagar eder bik emoten dabena aiña.

Beste gauza bat: Angula arrain zuri ala urdiña da?

Ba onetan urdin dala esan bear. Angulak % 16 proteina daukaz eta %13 koipe. Ortik urdin saillean sartzea.

EUSKAL ASTEA

Kolesterolik? - Ez dauka. Baña unoreakaz ibiltzen diranak, erreumakaz dabilzanak, kontuz ibili bear dabe: garnu ozpin edo acido urikoa daukelako.

Beste batzuk diñoe angulak zezenketarako edo torea-zteko 4 urteko zezenen antzeko dirala. Zegaitik? Ba lau urteko zezena, bein here zezenketako zeregifia bete ezkerro, arategira eroaten dabela eta gero bigarren mailla-ko okela lez saldu, eta angulak, txiki diran artean jan ezik aingira biurtzen dirala eta arraindegietan kosta egi-ten dala aingirak saltzea.

Eta gulak?

Gaur ainbeste ezagutzen diran gulak, zer? Zer dira gulak?

Nik labur eta zeatz esango dot gulak gertu edo lortze-ko zertzuk gaiki eta osagarri erabiltzen diran.

Ortik igarri leike bakoitzak zer diran.

Lenengo eta bein, Alaskan arrantzaten dan abarixua, erderaz abadejo arraiña edo beste deitura makallau arraiña.

Gero erabilten diran gaikiak: Landare motako olioia (aceita vegetal); gari uruna, arrautza zuringoa, gatza, sojaren proteina. txirlen bildumena (extraktoa) E-415 glutamato monosodikoa, xantana goma, limoi-mingarra-tza (ácido cítrico), E-330; txibi edo potxen tinta eta eguzki lore (girasol) olioia.

Ezin ukatu orretarako makina berezi bereziak bear diranik. eta onetan erabilten dan japoniar makina berezi-berezia da. Eta alperrik ez erabili luparik begiak ikuste-ko, ez dauka begirik-eta.

Eta besiguak?

Euskaldunok eta erdaldunak ez gatoz bat besiguari buruzko esaeretan.

Euskaldunok esaten dakigu: Santa Katalina noiz? Besigutarako goiz. Eta gaztelarrak euren aldetik esaten dakie: Por Santa Catalina el besugo en la cocina.

Dana dala, besiguak udabarrian eukiten dau here errotze denboran.

Andik host sei illabetetara, au da, Irailla ordurako, zazpi edo zortzi zentimetrotara elduten da. Orduan, oraindik besigu barik, pantxoa deitzen jako.

Ni gogoratzen naz Ondarrun bertan, gure erritik zear igaroten dan errekan, merkatu plazako ormetatik, zenbat pantxo arrantzaten zan kañabera txikiekaz.

Askotan esan be egiten zan, kaladan pantxoa arran-tzaten zala eta askotan kalada bakoitzean pantxo bi.

Orduan askok ez eben pentsaten errekan ebillan pan-txo ori, beti be itxasoaren goraberak egozan tokian egoan ori, besigukumea zanik. Zalantzan ipinten eben.

Baña dudarik ez dago pantxoak besigu kumeak dira-la. Gertatzen dana da oraindik lepoko baltzune barik agertzen dirala txiki izatean, pantxo izatean.

Besigua berez, jaio eta urte ta erdira eldu bear da 15 edo 29 zentimetrotara.

Besigua, here denbora onean, 30 edo 50 zentimetro-tara elduko da, baña ortik gorako gitxi ikusi dira. Baka-nak izaten dira orrelakoak.

Besigua ur otzetakua dala uste izanarren, neguan arrantzaten dalako, ur epel zalea dala esaten dabe ta ori-gaitik itxas barruan, berreun eta irureun metrotara jeisten ba daki neguan, ur epelagoen billa.

Bere janaria itxaski oskoldunak dira, bai eta oolkiak eta antzerakuak.

Besigua berez arin makaltzen dan arraiña da. Origai-tik erdaldunak esaten dakie: Besugo mata mulo. Zerbai-tegaitik lengo denboretan, gaur aiña garraio batzen ez zanean, batez be errioxako mandazaiñak egiten zituen osterak baña errietan beste garraiorik ez egoanetan bein freskorakoan eroan ezkerro gelditzen zana, arrantzale kofradiak eurak eskabetxean ipinten eben, urrengo oste-rarte.

Liburuetan bai irakurten da besigua gabonetako jana-ri berezi eta aukeratua zala.

XIV garren gizaldian, Hita 'ko Artxipresteak here idazkietan au idatzita laga eban:

De Sant-Ander vinieron las bermejas langostas, arenques et besugos vinieron de Bermeio.

Esan bear da besigu arrantzak Ian asko emoten ebal-a arrantzara joan al izateko.

Mariñelen etxeetan gertuten ziran ainbat tretza, an da, korda, amuetan antxoa zatiak ipini-az. Arrantzale bakoit-zak, Ondarroan beintzat, egunero etxean gertuta eroan bear izaten zitun oiturazko ziran aparixuak, kalara eldu eta geiagoko barik an itxasoan bereala zabaltzeko.

Gure gizaldi onetan, besigu urterik aberatsena, Biz-kaian, 1970 urtea izan zan. Urte orretan Bermeon baka-riik 708.000 kilo arrantzatu eta saldu ziran. Urte orretan, gabon aurreko iru egunetan, egun bakoitzean 50.000 kilotik gora sartu ziran.

1995 urtean, Euskalerra guztian, 6.700 kilo sartu ziran.

Orra besiguaren joera gure itxasoetan.

Alaz eta guzti, andik edo emendik, gabonetan itxura emon al izateko aiña agertu izan da uri andietako plaze-tan: Nun arrantzatuta?.

Ba Ego aldean, españar estatuko be aldean, Barbate,

Tarifa eta abarretan, edo ta Afrikatik ekarrita, agertuko dira aurten be guraria bete nai dabenentzat.

Ortxe geratu da besiguaren historia, esateko lez, ondua jota.

Dakigunez, orain eun urte Euskalerrian, gabon jaie-tan, besiguak lebatzak baño lau bidar gitxiago balio eban. Libraka saldu izan da beti eta urte orretan libra bakoitza pezeta baten saldu zan, au da, kiloko pezeta bi.

Aurten gabonetan zenbat ordainduko dan kiloko? Lau? Bost milla?

Jakingarri bat: Besigurik gurienak zalakoak? Eran-tzun daikegu zarrak diñoenagaz: Besigurik gurienak, gozoenak, buru txikikoak izaten dira. Au da gorputz andi ta buru txikikoak, lepoa gris gorritzka, egalak eta sabela zidartsua. Begi inguru gorri bizia eta egalak gorri-larrosa itxurakoak.

Ba dauke beste ezaugarri bat be. Lingirda (mantxa) nabar korea, baltzerana, here lepo gañeko arrai antze-koaren asieran.

Eta geiago: Besigua ez da txarra kolesterol daukenen-tzat, bere koipeak ase bakoak diralako.

Eta azken aolku bat: Besigua erostean, kontuan euki ez dala bardin besigu otza eta bisigu freskua. Besiguak itxas usaiña euki bear dau, kolore biziak, begi beteak, azaleko lingirda-mukua-gardena, zakatz gorria. Beste bat: atzamarrekin egindako ikutu batek ez dautso igarri-rik laga bear, ez dau memeldu bear. Orrela gertatu ezke-ro, agiriko da arrain on nekatua, azpaldi arrantzatua, zarra dala.

Orra zer galdu edo ta aldatu bear dogun gabon oiture-tan.

Eta olio aza?

Ori ez da faltako oiturak zaintzeko orduan. Gertatzen dana au da: gaur mai aurrekoak edo bitartekoak jateko oitura zabaldu egin dala, urteetan obetzen igarten dogun bizimoduaren eragiñez.

Eta sagar saltsa, intxaur saltsa eta abar... onetan lati-ñez esaten dana gogoratu bear: ad libitum. Edo baktotxak gura dauana.

Eta edateko? Onetan, len eta orain be, danetatik.

Gogoratu kantatxo au:

Familiaz batera
jarri nitzan maian,
Gabon zelebrazteko
alegrantzian.
Lenengoko traguan
iru txiki ziran,
otz gogorra egonarren
bizkor jarri nitzan.

Beste kantu baten esaten dana: Zoratzeko aiña.

Ana ta Jokin, Peru ta Martin
goazen zortziko dantzara,
gabon gabeen zoro ez dana
zororik andiena da.

Dana dala, gabon egunez oiturea da baita famili pobreei zela ala laguntzea eta esan bearra da antxiñako edo ta gaurko erara, laguntza on egiten dala eta gogoz eusten jakola oitureari.

Ama gureak here beiarri
kaikua bete esne baturik,
epel epelik, giro girorik
artu ba lei() gustorik!

Beste oiturak

Gabon jaiak apari utsean zeaztuten ba doguz, ez dau-kagu espiritu andirik.

Gabon jaiak fedeko oitura asko euki izan dabez eta familiko birtute asko.

Zuirretik aurten be gogoratu bearra doguz etxekoan baten utsunea, edo ta adiskide ta errikideenak. Gaixoak, eni-miñak, erbesteko urrunggaitzak, gogoratzeko lagun-tzeko egun berezia izan da beti Gabon.

Esaera aberatsak, biotzean ikutu eragin izan dabenak eta gaur be gor ez izatera beartuko gaituneak.

Gabon, dagonean bon bon, estagonean or konpon.

Gabon, daukanak eztaukanari emon bear sarri.

Gabon gabontzeta, gabon errezeta, gure Jauna jaio da ta jo daigun krisketa.

Au aizearen epela, airean dabil orbela, etxe ontako jende leialak Jainkoak gabon daiela.

Txiki eta andi, ume eta zarren etxez etxetako ate aurretako kantak auki eben ixilaldia. Zorionez ba dirudi oitura on urtetik urtera barrero indartzen asia dala.

Ai au gabaren zoragarria,
Jesus jaio da Belenen,
erririk erri, billa gabiltzaz
billa gabiltzaz beraren.

Atea jo ta baimena eskatzen da.

Gabon etxekoak. Kanta ala erreza?.

Zegaitik itaun ori. Zegaitik baimen eskatze ori?

Ba iñoiz gertatu izan dalako etxe aretan oraintsu nor-bait ildakoen baten lutoa egotea edo gaixo andiz dagoe-nen bat egotea.

EUSKAL ASTEA

Orrelakoetan etxeokak. Errezateko eskatzen dabe ta gabon kantariak bereala asten dira erreguka.

Beste batzuk dei orreri ez kanta ta ez erreza, erantzuten dabe zitalki eta orrelakoetan neska mutillak erdi lotsatuta aldentzen dira.

Geienak abestuteko, kantateko agindu eta orrela jarraitzen dabe eskupekoa artu arte.

Baña ba dagoz beste oitura batzuk.

Etxeetan. oituraz eguneko jatorduak sukaldean egiten dabezanak, gau onetako aparria jan tokian, "komendarean" egin nai izaten dabe.

Aparria astean, etxeko buruak ogi opilla asi ta lenengo kuskurrean kurutzearen ezaugarria egiten dau eta ondoren kuzkur on gorde egiten da urte guztian, arazako kajoitxu baten. Ez dala lizunduten esan eta siniskera dago.

Ogi on bera jausita be, lurrera jausita be, txakurrak ez dauala jaten, esaten da.

Beste batzutan, txakurra amorruek gaixotuten ba dau be, berari emoten yako, amorruek kenduko dautsan sinistez.

- Gabon gabeen krabeliña lurrean landatu ezkerok, ederra etorten dala be esaten dakie.

Larrabetzuarrak gogoratzen dakie, Gabon gabeen ildakoak etorten dirala sutondora eta sutautsetan lagaten dabezala curen aztarnak.

Gabon kanta jatorrak

Eta Gabon kantak zer?

Or doguz Marijesiak Gernika aldean. Zorionez urtero barrizatzen da oitura. Batzuk Gernikako Marijesiak deitzen dautsez, beste batzuk Urdaibaikoak.

Abenduren amaseian asi eta bederatzi egunetako goizaldetan kantatzen dabez gernikarrak. Danetara 75 estrofa dira. nai ta danak barik, egunak bereiztuta euki.

Lenengo lau egunetan 32 koplak abestuten dira, beste lau egunetan urrengo ogeita-amabiak eta azken egunean azken amaika koplak:

Ogeita laugarrena
dogu Abendua,
desio genduen
logratu genduna.

Musikak be aldatu egiten dira, lau egunetik lau egunetako bertsoekaz batera.

Beste kantu batzuk, esan bardintsuak eukiarren, erri batetik bestera euren lekukotasuna agertzen dabe eta igarten da tradisiño luzea eta tokian tokiko kutsuz egiñak dirala euretariko asko.

Luze jarraitu leike gabon oituretaz jarduten, aberatsa dalako gure folklorea gai onetan. Baña gaurkoz amaitu bearrean nago.

Angula, besigu eta beste janari berezi batzuekin guraririk ez da be, egun oneitan alkar maitasun eta bake garra zaindu dagigun erriaren eta danon mesedean.

ZUBIKARAI'tar AUGUSTIN

GABON OITURAK

Biziak daben aldi eder bat
egiz dogu Gabonetan
mundu tristia poztu zeitean
argia dator izketan;
ni naz bidea munduarentzat
ni naz egia benetan
ni naz bizia gizonarentzat
salbamenaren bidetan.

Aurtxo txikia seaskan dago
Jaungoikoaren Semia
arrokerizko munduarentzat
jazokun arrigarria;
Egille onak ezin izan dau
galduta itzi ludia
askatxo baten agertu dausku
here maitasun guztia.

Ordu-ezkerok euzkotar ona
ezin egon da geldirik
lanez on eiten beartsuari
esku biak zabaldurik;
Gabon aldian baita be ere
beztz janak bialdurik
sendi askori poza damotso
Gabon Jaiak ospaturik

PAULIN

ARAZOAK

– Gipuzkoako Foru Aldundia – Kultura eta Euskara Departamentuak:

"Izan ere, eskatzaileak aurkeztutako jarduerak eragin sozial gutxikoak dira Gipuzkoan"

Askotan, KILI-KILIrenganako euskal eremu batzuetatik aurreritxiz beteta jokatu izan da, alango edo zelango pentsakerakoa edo izkuntza ereduakoa dalakoan. Aurka jokatu eta eraso. Izan be, ezker inguruko baten batzuk zer edo agaitik bazterrean ikusi gura izan dabe. Baina, egia esan, zeozer izan bada, KILI-KILI euskerearen maitale eda aldezele sutsua izan da beti, eta orrek asikera-asikeratik abertzeletasunaren alderdira eroan izan dau. Eta abertzeletasunataz esanetan eta ekintzetan bete-betea bat etorteagaitik ez deutsoe parkatu, aurki. Eta susmo osoa dot on izan dala, atan be, oraingo onetan parkatu ez jakona, ezker inguruagaz ezelango zerikusirik ez daukan alderditik. Ze emon, batzuk eta besteek emon dabezan arrazoiok



gutziz susmagarriak egiten jataz., negargarri besteko lotsagarriak izateaz ganera.

Artean, txakur erraldoiak ekarten doguz gure Errira erri-dirua guzurkeria eta azalakerietan neurri barik parra-parra ondatuz. Baina politikoeke orrelangoak egiten jarraituko dabe. Bien bitartean, nire begirunea eta uste ona aspaldian galduta dabez. Betiko galdu bel.

I NIAKI MARTIARTU
1998ko urtarrilean

* * *

LEENENGO EUSKAL MEZEA

Don Klaudiok San Antonen?

Bein baino geiagotan entzun izan dot, eta noizbait irakurri be bai. leenengo euskal mezea Bilbon emon zala, San Antongo parrokian, eta mezemoilea Don Klaudio ospetsua izan zala. Gure elorriotarrak bere erritar batek euskaeraturiko mezaliburua erabili ei eban orretarako, Kerexetaren "Eguneroko Meza", ain zuzen be. Ez dakit ziur zein urtetan izango zan ori, baina argi dago azken Kontzilioa amaitu eta gero izango zala. ez leenago.

Orienteko mezea euskeraz

Ez naz ni emen ori olan izan zan ala ez aztertzen eta ezta-haidatzen asiko. Bahia oraintsu aurkitu dot, neure liburuen artean, galdutzat neukan idaztitxu apal hat: "Lagunarteko mezea orienteko kristiñauen eraz". Euskeraz eginda dago, Bizkaiko euskeraz atan be. Ez dino inon zein urtetan argitaratu izan zan (bai, orraitino. latinez, nok eta noiz emon eban argitaratzeko eliz baimena: "Flaviobrigae, 18 januarii 1959, PAULUS, Episcopus Flaviobrigensis" au da. Bilbon, urtarrilaren 18an, 1959 urtean, Paulo Gurrupide gotzainak). Argitaratu. Bilboko "Delegación Misional Diocesana" eritxonak egin emu; onen zuzendaria, urte askotan. A.C. Omaetxebarria abade gernikarra izan zan.

Abade "melkita" bat Derion

Idaztitxu onek ainbat gomuta zaar ekarri eustazan burura: Derioko Seminarioan ha egoan orduan D. Francisco Ballester Viú eritxon abade hat. Gurrupide gotzainak kanpotik ekarria. latin eta griegozale amorratua. Ekialdeko Eleizea be ondo ezagutzen eta asko maite eban: ganera, beste baimen bat be ba eukan gure gizon onek: Eguskialdeko liturgia erabilteko baimena. "Rito melkita" eritxona erabilten eban (au da. "rito bizantino". haiña arabe izkuntzaz), eta ia egunero olantxe emoten eban meza santua: arabez, an Derioko etxe baten beragaz eukazan gazte palestindar hatzuentzat emoten hachan; gerkeraz, ostera. Derioko Seminarioan, ikasle abadegeiak erasoten eutsoela (eurotariko asko izkuntza onetan aurreratuak eukazalako, batez be, "PERFICIT" izeneko kurso berezia beragaz egiten ebenak).

Eguskialdeko mezea euskeratu

Atan orretan. Ballerter orrek bein aitatu euskun Seminarioan berak ba eukala baimena edozein izkuntzatan mezea emoteko, here ritoari jarraituz, jakina; eta euskeraz emoteko be prest egoala, norbaitek here liturgiaren euskal itzulpena eskeintzen baeutsan. Bai gero? Eta, ez dakit nik zelan, arlo orretan sartu ginan edo ginduezan, Derioko Seminarioan euskerazko ikasle ziran teologoak lagun nituala. Orduko gure euskerea (bai irakaslearena, bai ikasleena) makala etea

pobrea zan, baina besterik ezinean, borondaterik onenaz egin genduan itzulpen ori.

Retolaza eta Ballester

Aldi atan J.A. Retolaza euskaltzalea egoan Arrazolan abade, eta berari otu jakon here parrokian euskal meza ori emotea. Eskabide au Ballester Viú-ri egin eutsanean, onek pozarren emon eban here baietza.

Edozein izkuntza menperatzeko berbiziko erreztasuna eukan gure Ballester-ek, eta euskerea ganoraz irakurtea eta mezaren zati batzuk buruz ikastea be ez jakon orren gatx egin. Arrituta itxi ginduzan guztiok, Arrazolako eleizan, erri guztiaren aurrean, mezea euskeraz emoten ikusi genduan. Mezea euskeraz emotea egunero edonon ikusten dana da aspaldion; baina gogoan izan daigun, kristiñau fedea gure errian sartu zanetik, emen mezaren liturgia beti latin zaarrean egiten zala, munduko beste erri askotan lez. Ba egozan, bai, meza santuaren erdal itzulpenak (euskerazkorik bat baino ez neban orduan ezagutzen: ORIXE andiaren "Urte guziko Meza-Bezperak" eritxona, guri Seminarioko azken urteetan ainbeste mesede egindako liburu bedeinkatua; Jaime Kerexetaren "Eguneroko Meza" gerotxuago agertu zan, 1962-63 urtean. Gure euskal errietan, egia esan, geintsuenak isilik egoten ziran meza denporan, edo-ta kantaren batzuk kantaten ziran; sarritan, mezemoileak isilik meza emoten ziarduan bitartean, beste abade batek katekesi gairen bat azaltzen eutson an batutako kristinau erriari.

Arrazolan euskeraz Eguskialdeko mezea

Arrigarria baiizen pozgarria izan jakun Ballester Viú jaina eguskialdeko Mezea euskeraz emoten ikuste, non eta Amboto azpiko Arrazolan. Alakorik ez genduan egundo ikusi (Esan daigun, orraitino, erderaz orren antzeko mezak lantzean bein emoten ziral, batez ere kristiñauen Batasuna eskatzeko egiten zan zortziurrenean, urtarrilean). Beste euskal gai askotan lez, onetan be aurrelari izan genduan J.A. Retolaza, "KILI-KILI"-ren sortzaile ta zabaltzaile aspertu ezina. Bakotxari berea zor jako: "nori berea, ori da zuzenbidea".

Vaticano II Kontzilioak andik urte gitxira emon eban mezea erri bakotxari here izkuntzan esateko baimena. Baina Kontzilio orren aurretik, Euskalerrian, nik neuk ez dakit beste inon emon zanik euskeraz mezea, Arrazolan baino leenago. Ballester Viú jaunak eta J.A. Retolazak ondo irabazita dauke aipamentxu an aldizkari onetan.

Gure itzulpenak agiri agirian ditu here akatsak, ezjakinaren ume erkinak; baina beronen bidez emon aal izan zan leenengo meza ori euskeraz. Euskal liturgiaren artxibuetan zor jakon leku bat izan begi euskerazko itulpen apal onek, baztertxu batean beinipein.

E. URIBE

ANDRES-KALEKO MATXALEN 2N SARIA (1997)

Alaba bizkiak izan ebezen Peru eta Mari'k; Bata, Matxalen, bizia eta argia: bestea, berriz Mari. otsana eta paketsua. Biak gelditu ziran umezurtz arako 1919'garren urteko gripe negargarri arekin.

Lau urte eramazan Europa'k burrukan, alkar iltzen, odolez lurak gorritzen... Eta, aren ondorena edo, izurri ikaragarri bat agertu zan pure artean eta umezurtzez Brain ebazan euskal lurak.

Gazteak izan eta errez moldatu ziran Buren bizi berrira Matxalen eta Mari, naiz-eta etxe-bizitzatxo hat besterik ez izan zero eta lurren aurrean. Eskuak baebetzen, beintzat; lurak jorratzen ikasita egozen eta, artarako gogoia izan ezkerero. Iana sortzen da andik edo emendik.

Aste osoan jai-egunari begira eta kanta zaarrak diñoenez neska mutil zaliak "oiñak ariñak eta burua ariñago...". "Gogoia nun, zankoa an", diño beste antxiñako esaerak. Bi neskatok "txistu-soiñua nun, gogoia an": baña, batez be, pelotari eta aizkolari gazteak ziran Buren aize-orratzari nora-bidea enlaten eutsoenak...

Bai ha, Arrandi'ko Abdon'egaz maite-miñez, txorabioak artuta ebillen Matxalen, geldi eziñik. Zein zan Arrandi'ko Abdon? Ogei urteko pelotari bikaña, zortzi arrua aragi trinko pertxa zuzen batean esegita. Arek bai zituela oiñak arin eta besagaiñak indartsu! Txokora jotzen eban pelotak, sekulan boterik ez; bertan ilda gelditzen zan; atzera jo ezkerero, marra guztien gaiñetik, kamiñoraiño joaten zan pelota.

Beñ. Durango'ko azokan, partidua irabazi eban egun aretan, (Matxalen'en zorabioa), alkar topo egin eben Goi-ko-kalean, eta Abdon'ek agur egin eta onela esan eutson: -Kaixo, Malen, zertan abillen?

—Zeu ikustera beste barik.

—Ederto, alkar ikusiko dogu beste batean.

Ori esan eta aide egin eutson. Alan be, Matxalen kalean zutunik, garunak aizeak eruanda lez, eta poza biotzetik dariola esanez:

—"Abdon'ek berba egin daust...".

Etxera hiurtu danean, here aizpatxoari ustu deutso anima eta barruan gorde eziñik, gañezka eukan zoramenaren berri emon: Mari, tuntunak, errian zabaldu. Bi aizpak dira tuntun-xamarak eta ezkutuan ezer gorde ezin.

x y *

Martolo Morokil'ek, on entzun ebanean, Urkiola'n bertan be entzuteko algarak bota ebazan. Eta, muserako tabernan bildu ziranean, barrez errementa bear; danen artean

eratu eben plana eta bigaramonean, Abdon'en partetik, mezua bota eutsen Matxalen'eri:

Biar zapatua, illargi berri, Errota-zaarre'ko zubi-azpian alkartuko gara, bein illunduta gero.

Tximiak orraztu, soñeko bernia atara kutxatik, jaietako oiñetako zuri politak garbitu eta, aizpatxoa ogeratu danean, ankapunttatan irten du etxetik.

Gaua illun dago, baña berak ez du biderik galduko, bioz-zean biztuta daraman zuziak, argituko deutso bidea Zubi-zaarreraiño eta azpiko txoko batean gorde dau here burua erne eta urduri noiz Abdon agertuko.

Luze doakio denbora; baña, ezer nai dabenak here gogoiari eutsi bear deutso gogor, asmorik sendoenagaz, Matxalen'en antzera...

Artan, dorreko kanpaia orduak jotzen. Amabiak amaitu barik ara, erreka beetik eta goitik, iskanbilla bizian, lami-sailla nun agertzen dan, guztiak zubi-azpiko uretan murgiltzera. Ango zalaparta eta ango berba egin bearra, alkarri berriak emoten. Guztiak berba egiteko; iñor be ez entzuteko.

Matxalen ikaratu da ezurrak urtuteko eran; barrua errezen dautso bildurrak eta ez da arrazoirik palta: leengo batean, Errekaldeko ganbaran, arto-xurietan ari zerala, lamiak eta sorgiñak atara ebezen platerera eta Matxalen'ek auxe esan eban:

—Sorginik eta lamirik ez dago; siniskeri zoroak dozak orrek eta neuk ez dodaz sekulan be ikusi eta ikusten ez dana, ez da sinistu bear.

—Eta, ikusten dozuna, zelan sinistuko dozu? Sinisten dira, ikusten ez diranak. Neuk, beintzat, sinisten dot.

Beste guztiak be, Aitaren eginda, orixe esan eben, ao batez. Matxalen'ek ezetz eta ezetz, danen aurka. Orrek danak esanda geno, amen dago, lamien aurrean, biotza koi-pearan antzera urturik. Konturatuko ote dira?

ii *

Orixe bai konturatu dirala. Lamiña gazte batek ikusi dau, beregan borobilduta, arri baten babesean here burua iskutatuta eziñik, eta arek jo dau zantsoa:

—Ara amen Andres-kale'ko Matxalen lamiñik ez dala esaten dauana!

Ori entzunda, bata bestearen ondoren gerturatu dira Matxalen'gana eta Lamia zaarrenak onela diñotsa:

—Gu ez gerala: baña, bagaitun. Mari Petralin ez, beste guztiak emen gaitun.

Oii esanarekin batera, bakoitzak ule bat burutik kendu eutsoen eta aizkenerako ule-matasa orixka ederra lamiñen esketan; buru-soil Matxalen koittadia.

– Orain etorri gurekin dantzara.

Eta, besterik gabe, murgildu dabe uretan bein eta berriz, ia itoteraíño. Tximia buzti sorbaldatik beeraiño; jaietako perkaliñazko soiñeko zuria gorputz-azalakin bat eginda, berak be, lamia zirudien. Baña, ur-azpian, arnasik artun ezin.

*
:P

Eskerrak aldameneko Doniane basarrian, perretxikoak janda, nagusia presaka, sabela arintzera, kortara joanik dala, krisaillua eskuetan daua. Makil baten puntan zegoen Martiollarrak, argia ikustean, egun-sentia irudituta, jo dau bere kikiriki indartsua.

011ar-irrintzina entzutean, tximistak artuta, aide egin dabe lamia guztiak, Matxalen il-zorian utzita. Zubi azpian geratu da intzirika gau osoan.

* *

Goiz-aldean, Mari'k, aizpa palta dala ikusirik, aurretik susmoa artuta egoen, eta an joan da arin-aringa Errota-zaarreko zubira. Abdon'en orde, lamiak topatu dauz Matxalene'k eta aizkeneko arnasetan zirudien. Ez zan gutxigorako. Gau aretan buru-ganbarako ordularia naastu zearo Matxalen'eri, atzera eta aurrera, iñungo ordenamenturik bage...

A T -1.

Nere amak eskubiko besoa perlesiak jota eukan eta orregaitik dei egiten eutson Matxalen'eri baratzako lanetara. Oneri, buru soillean, zidarrezko ule-matasa sortu jakon, aurpegiko azala zimeldu eta burua naastu: baña, baratzako lanik ez dau aztu eta orretan oso trebea da.

Sei errial irabazten dauz egunero, eta bere aispatxoak beste orrenbeste irabazten ba'dauz, bidean aurrera joango dira.

Abdon'ek, txapeldun zalarik, damatxo aberatsa topa eban lagun, eta joanak ziran biak uri nagusira; aren arrastorik ez da errian arrezkero baña. Matxalen beti aren zai. Itxaropenik ez dau galdu; sekulan galduko be.

><~.

Martolo Morokil zaartu da eta oraindik barre egiten dau tso Matxalen'eri; berak, ordea, beste orrenbestekorik ez dau topa bizitza osoan. Naiko leuke leengo kanta zaarra beretzako idatzita ba'lego, ezer ez baiño oba izango litzake-ta:

"Nere andriak kamixa zaarra
bernia ba'lu ezer ez
zazpi astian soiñian dauka
garbitzeko alperrez..."

Matxalen lamien bildurrez bizi da:

* * *

"Lamiak eta sorgiñak leize-zuloetan bizi ba'dira, zergaitik ez dozue zulo oietan gazoliñia botatzen, su eman eta danak erre?"

ARRINDA'tar ANES

EUSKERAZAINTZAREN ASMO BI

EUSKERAZAINTZA EUSKEREAREN ERRI-AKADEMIA'k asmo bi daukaz aurtengo udarako. Oraingoz zeaztasun geiegi barik iragarten doguz gure ZER onetan:

1.ª – UDARAKO LENENGO IKASTAROA (1998)

Donostia'n izango da, Uztaillan. Manu Oñatibia'ren izena daroa eta here irakasbideak be erabilliko dira. Elburuak: Euskalerraren edestira eta kulturara sartu, euskeraz itzaldiak emoteko izlariak Qertatu, Bertso -papelen saltzailleak adoretu.

Gaiak: Euskera jolas-bidez, euskera arteza eta euskal-aditza (Laxaga'k). Euskal kristutasunaren sorrera (Latiegi'k), kristau-aurreko sinismena (Anes'ek), Sabino Arana'ren emaitza (011o'k), Euskal-albistaritza (Zubikarai'k) Azkue ta erri-literatura (Olazar'ek), Elebarria (Zubiri'k) Bertsolaritza (Legarreta'k), Bertso papelak.

Azkenean 15 orrialdeko lan bat egin ezker, Diploma bat artuko da. Edo orrialde bateko azterketa gainduta, B-maillako agiria.

2.ª LETARI-EGUNA

Aralar'era, maiatzaren ogei ta amarrean.

- Alkartzea, Basozaiñaren etxean.
- Oiñez San Migel'era txistulariak lagun dirala. (Nai dabenak an).
- Abesti zarrak abestu.
- Euskal Santuen Letariak (San Migel'era eldu).
- Ibildeuna irudiagaz.
- Orixe'ren Letari atala irakurri Euskaldunak liburutik.
- Letariak eta Euskalerria lau aldeetara bedeinkatu.
- Meza Santua.
- Senide-arteko bazkaria.
- Basaburua ta Itxaso'ko eleizea ikusi.
- Etxeetara.

ILEZKORTASUNA (JESUS OLEAGA)

ZEReko azkenengo alearen aurrekaldean Jesus Oleaga zanaren irudiaren azpian, jaiotza eta eriotza urteak aipatzarakoan "19...-1998" jartzen dau. Ulertzekoa da ez jakiteagaitik edo inprentaren errakuntzaren bategaitik izatea ori, baina ez dira ez bata ez bestea salatzea lerro onen elburua. Ez, ipotx asko izaten dira inprenta lanetan, orretan denpora galtzen asteko.

Ez ilkortasunari eta ez-ilkortasunari buruz zeozertxo esatera natortzue. Zubiri tar Inakik ale beretan esaten dauanez badagoz gizon-emakume batzuk sekula ere ez leitekezanak il bear. Baina giza legea edozein gogo eta asmo baino gogorragoa danez, onartu egin bear gure ilkortasuna eta ezagun, lagun eta senideen aide egite ori.

Baina badago beste giza-lege bat: gizakiak ez dira ilten gure oroimenean dagozan artean. Beraz, ez dakit zein urtetan jaiotzen zan Oleaga jauna baiña Inakik dinoanez 83 urte euki badauz 1915ean jaiotako zan. Egoki ikusiko neuke "1915-19..." jarriko baleu bere ilobiko oroitarrian. Oleaga, Aita Santi, Aita Lino, Landajuela, eta beste asko ez dira ilda egongo gure oroimenean lekutzoren bat dauken artean.

Gaur egun oraindino Ferroleko Patxiko gogoan badugu, egin ebazanek eginda, zelan ez doguz eukiko, ba, Euskal Erriaren eta euskeraren aide orrenbeste lan egin dabezanak?. Ez dakit zergaitik baina sarritan ongileak gaizkileak baino leenago aztuten doguz; bearbada minak poztasunak baino geiago irauten daualako izango da.

Aurrekoan esan nebenez, gizonon lana argitaratu egin bear da. Argitaratu dinodanean inoiz baino zeatzago darabilt itza, iluntasunetik argitara, eguzkitara atara. Batzuren lana liburu zein idaztietan, irudi margotsuetan, arlan edo eskultura politetan, edota eraikuntza ederretan ikusteko aukera izango dogu beti, denporeak iruntsi arte. Kaleren baten izena ere euren oroimenez jarriko da seguru antzean, naiz eta sarritan lana eta kalearen garrantzia bat ez etorri. Zenbat kale garrantzitsuk dauke euskatzale andi baten izena?. Bilboko Santutxu auzoan badira "Pintor Losada", "Juan de la Cosa" eta antzerako izenak daroezan kaleak, baina ziur nago Aita Linok orreek baino denpora geiago emon ebala auzo orretan eta oraindino ez dot uste kale ilunen baten izena ere emoteko asmoa daukanik Udalak.

Emon daigun barrero Bilboren kasua: Zein izan da Lauaxetak jaso dauan bere lanaren ordaina? Enparantza ilun bat. Txirrita eta Bilintzek ere inork ez dakian bazter

baten kale labur bat dauke. Xalbadorrek eta Xenpelarrek ez dauke gauza obarik. Ez deusat meritorik kentzen Blas de Otero-ren lanari, baina ez ete dau here besteko garrantzia izan Lauaxetak edo Lizardik?, eta leenengoari kale garrantzitsu baten izena eskeini dautsen artean bigarrenari esan dodanez enparantza ilun bat (Bilboko ez zalako izango ete da?) eta irugarrenari ezer ez. Perez Galdos idazlea ez zan Bibotarra eta Txomin Agirre ere ez, baina bata bere kalea dauka eta besteak ez. Politika mundua ikutu ezkerreko gauzak agur bat geiago orekatuta dagozala esan daikegu. Badirudi kale garrantzitsuenen izenak politiko eta militarrentzat izan bear dirala eta euskerazaleak bigarren mailako pertsonak dirala. "Errege Katokiloak" ere badauke Buren kalea.

Dana dala kale baten izena eskeintzea edota bazterren baten eskultura edo arlan bat jartzeak ez dau lortuko pertsona orrek aaztutea. Zenbat dira, "Hurtado de Amezaga" k, "Fernandez del Campo" k, "Colon de Larreategui" k, Concha'k, Salazar'ek, Eguia'k edo Castillo 'k zer egin eben dakienak?. Orregaitik ba, oroitarri bat edota kale baten izena eskeintzea ez da naikoa pertsona baten lana gogoratzeko.

Baina leengo denporetan Patxikok debekatzen ebalako eta geroago beste Patxikin batzuk eldu ziralako askoren lana ilunpean geratzen da. Ilten diranean aldizkariren baten ale berezi bat eskeintzen jake, edo egunkariren baten aipamen txiki bat egiten da edo... eta kitxo! Agur jauna, Egun Andirarte, ez dago besterik. Urkoengan oroipen aaztu-ezinak geratzen dira baina urbileko traturik ez dabenak izan, bereala aaztuten dabez.

Beraz, eta ez dot aspergarria izan gura, baina ainbat jenderen lana dago argitaratzeko, eguzkiaren argia ikusteko. Batzuk joan jakuz, beste batzuk apalegiak izan diranez eta orrexegaitik beti gereizpetan ibili diranez batzuk baino ez dabez ezagutzen, eta beste batzuren lanen aztarrenik ez danez gelditu (ez dira idazle, margolari, arkitekto edo orrelakorik izan, langile utsak baino, antolatzaileak, sortzaileak,...) arrisku andiagoko dauke Buren meritoak ezerezean geratzeko. Aurrekoan esan nebenez ezagutu dozuezanok zeregin galanta euki daikezue askoren lana argitzen; eta beste gurtioak zabaltzen eta ezagutzera emoten, gizonok betirako bizi daitezen gure artean. Danon lana da.

ENRIKE ITXASALDE




Eusko Jaurlaritzaren

Laguntzaz.

Kultur Saila'k diruz lagundutako aldizkaria.

EUSKALDUN BARRIENTZAT

TARTEGARRIAK



Gizon zarra.

Arpegian dogu.

Edaten dauna (alderantziz)

Zetazkoa, zeta dauna

Gela mota.

Egun onetan.


Bizkaiko erria.

Bere aitaren semea.

AZALPENA
 Agure, ago, edale, zetadun, egongelak, gaur, Gernika,
 neba.





Marrazki onetan 7 erru dagoz. Aukitu!



Azalpena


KARMELE



EU 

Colón de Larreategi, 14 - 2.ª dcha.
48001 BILBAO

Akelarre. Nestor Basterretxea



BAT GATUZ EUSKAL KULTUREAGAZ

Erakundearen konpromezutzat
artuten dogu, geure erri onen
arimeagaz bat egitea. Orrexegaitik
lagunduten deusegu gogo osoz,
geure nortasun berezia indartuten
deuskuen kultur adierazpenai.

Eta aparteko arreta iminten
deutsagu, kultur adierazpenen
artean, gure ezaugarririk gorena
dan euskerearen garapenari.

EZ DAGO GEIAGO ESKINTZEN DAUANIK


Bilbao Bizkaia Kutxa